

euskaltel *life*

Eskuliburu laburra



euskaltel 

AURKIBIDEA

Ongi etorri Euskaltel Lifer	4
Zure mugikorretik	6
Deskargatu Euskaltel Life aplikazioa	7
Euskaltel Life urratsez urrats	9
Jakinarazpenak zure posta elektronikoan	10
Datuak eta neurriak	11
Sentsoreak konfiguratzea	12
Zuzenean emititzea eta grabatzea	13
Grabazioak	14
Moduak	15
Erregelak eta oharrak	18
Entxufe adimenduna	20
Gertaerak kontsultatzea	21
Zure ordenagailutik	22
Sartu life.euskaltel.com gunean	23
Euskaltel Life urratsez urrats	25
Jakinarazpenak zure posta elektronikoan	26
Datuak eta neurriak	27
Sentsoreak konfiguratzea	28
Zuzenean emititzea eta grabatzea	29
Grabazioak	30
Moduak	31
Erregelak eta oharrak	35
Entxufe adimenduna	36
Gertaerak kontsultatzea	38



Ongi etorri

euskaltel
*life*_{ra}

Hasiko gara?

Eskuliburu honetan pausoz pauso azalduko dizugu zerbitzua, ahalik eta etekin gehien atera diezaiozun.

Sentsore bakoitzak ematen dituen aukeren inguruan egunean nola egon azalduko dizugu, eta ikasiko duzu neurriak interpretatzen, kamerak konfiguratzen, entxufeak piztu edo itzaltzeko modua konfiguratzen, eta jakinarazpenak eta erregelak konfiguratzen.

Ongi etorri Euskaltel Lifek ematen dizun lasaitasunera. Kontrolatu zure etxea edo zure negozioa edonon zaudela ere.



Deskargatu

Euskaltel Life aplikazioa

zure mugikorretik





Dagoeneko baduzu Euskaltel Life aplikazioa?

Ez baldin baduzu, Play Storen eta Apple Storen eskuratu dezakezu.

Androiden erabiltzailea bazara, 4.4 bertsioa baino berriagoa behar duzu, eta 2 GB-ko RAMa. Appleren erabiltzailea bazara, iOS 9.3 bertsioa edo berriagoa behar duzu.

Deskargatu ondoren, Euskaltelen Bezeroaren Guneko pasahitz berbera sartu behar duzu. Ondoren, izen bat jarri beharko diozu zure Unitate Zentralari, jakinarazpenak eta oharrak han jaso ditzazun.

Zorionak! Zure eguneroko bizitza errazago egingo duen zerbitzua erabiltzeko behar duzun guztia baduzu.




Euskaltel Life

urratsez urrats

Erabiltzaileak gehitzea
edo ezabatzea



Aplikazioaren era- bilera familiako norbaitekin edo konfiantzazko la- gun batekin parte- katu nahi duzu?

Oso erraza da. Zuk aukeratzen duzun pertsonak aplikazioa deskargatu eta aurreko puntuan aipatutako pausoak eman behar ditu. Edozein unetan gehitu, desaktibatu edo ezabatu ahal izango dituzu erabiltzaileak, goian  ezkerrean dagoen menua erabilia.

Datuak eta neurriak



Emango diogu begiratu bat?

Prest zaude dagoeneko zure etxean izandako gertaerak aplikazioaren bidez kontsultatzeko.

Neurri bakoitzak zer esan nahi duen jakin nahi baduzu, sakatu horien gainean, eta azalpena irakurri ahal izango duzu.


Erregistratutakoneurrien historiko abistaratzeko, sakatu sentsorea edo **"Xehetasuna"** ikonoa.






Badakizu sentsore eta neurgailu guztien izenak alda ditzakezula?

Pertsonaliza itzazu, errazago identifika ditzazun.

Aplikazioaren bidez egin dezakezu, **“Aldatu izena”** sakatuta. 



Euskaltel Life kamera bat duzu? Edo bi?


Bada, zuzenean ikus dezakezu zure etxean edo bulegoan gertatzen dena, edonon zaudela ere. Sar zaitetz kameretan **Aplikazioaren** bidez, eta sakatu **PLAY** bistaratu nahi duzun sentsorean. Gertatzen ari dena ere grabatu dezakezu. Oso erraza da: sakatu **● REC** menuan.

Teknologiarik aurreratuen erraz-erraz kontrola dezakezu.





Berriro ikusi nahi dituzu zure grabazioak?

Sar zaitetz aplikaziotik grabazioetara  "Grabazioak" sakatuta; hautatu bistaratu nahi duzuna, eta sakatu **PLAY**.

Erreprodukzio bakoitzaren amaieran grabazioak ezabatzeke edo gordetzeko aukera izango duzu. Zeuk erabaki. **Euskaltel Lifek** aukera ematen dizu guztira 30 grabazio gordetzeko. Zuk zeuk gordetzen ez dituzunak hilabete pasatu ondoren ezabatuko dira.



Nola daki Euskaltel Lifek etxean zauden ala ez?

Euskaltel Life zerbitzu bat da, etxea kontrolatzen laguntzen dizuna, bai etxean zaudenean, bai kanpoan zaudenean. Gauean txikiak jaikitzen direnean korridoreko argiak piztu daitezela, etxean zaudela simulatu dezala nahi dituzun gailuak piztuta... Horretarako, "**Moduak**" sortu behar duzu.


Moduak konfiguratuta, **Euskaltel Lifek** jakingo du zer ordutegi duzun. Hartara, etxean zauden ala ez jakingo du, bai eta gaua den ala eguna den.

Sar zaitetz aplikazioko "**Moduak**"  menuko Programazioan, eta konfiguratuta eskuz edo modu programatua. Probatuko dugu?



Eskuz


“Eskuz” aukera hautatzen baduzu, modua aldatu nahi duzun bakoitzean aukeretako bat hautatu beharko duzu: etxean egunez, etxean gauzez edo etxetik kanpo.

Erraza da; aplikazioan  “Eskuz” aukeran sartu besterik ez duzu egin behar. Gainean dituzu modua hautatzeko hiru aukerak.



Modu programatua

Moduak automatikoki aktiba daitezzen nahi baldin baduzu, programatu egin behar dituzu.

Aplikazioaren pantaila nagusian, sartu  “Programatuta” aukeran, sakatu “Konfiguratu” eta “Moduaren programazioa” zure ordutegia konfiguratzeko.

Sakatu “Asteko egun guztietan erabili” aukera ordutegi bera egunero errepikatzeko. Gorde aldaketak konfigurazioa amaitu duzunean. Egina!





Erregela berri bat gehitu nahi duzu?

Jaso abisuak **Euskaltel Life** zure etxean kea edo mugimenduren bat detektatzen duenean zu kanpoan baldin bazaude. Edo berogailua piztu dadila etxeko tenperatura zuk nahi duzuna baino baxuagoa baldin bada. Horretarako erregelak eta oharrak konfiguratu beharko dituzu.

Erregelak zuk nahi bezala konfiguratzeko, sartu aplikazioan,  **Erregelak > Erregela berri bat sortu.**



Ondoren, sakatu **“Erregela berri bat gehitu”**, hautatu zure beharretara hobekien egokitzen dena, eta konfigura ezazu.



Ez ahaztu egindako aldaketak gordetzea. **“Iragazkiak”** atalean iragazki batzuk dituzu sortu nahi duzun erregela-mota hautatzeko.



Entxufe adimenduna



Zure etxeko kontsumoa kontrolatu eta alderatu nahi duzu?

Orain, horretarako aukera duzu **Euskaltel Liferen** entxufe adimendunei esker. Horretarako, sartu aplikazioan eta sakatu **“Zeroan ipini kontsumoa”**. Gainera, konfiguratu egin ditzakezu, abisu bat bidal diezazuten elektrizitatearen kontsumoa handia denean. Esan agur ezustekoei!



Gainera, aurreztu etxetresna elektronikoko guztiak programatuta itzaltzeko aukeraren bidez, **“Stand by”** egoeran edukitzeak dakarren energia-gastua aurreztuko baituzu.

Nahiago baduzu, urrunetik pitz eta itzal ditzakezu entxufe adimendunak, aplikazioaren bidez, entxufe bakoitzaren ikonoa sakatuta. Handik, zuk nahi duzuna hautatu ahal izango duzu, eta nahi duzunean aktibatu edo desaktibatu. Zoragarria.

Gertaerak kontsultatzea



Ikusiko zer gertatu den etxean?

Gertaera bat **Euskaltel Liferen** bidaltzen duen edozein ohar da. Adibidez: **“Jakinarazi haurren TBa behar ez den ordu batean aktibatu bada”**

Gertaerak aplikazioan ikusteko, sartu hemen: **Gertaerak > Ikusi denak**. Sartu erregistratutako gertaeren laburpenean, **“Egutegia”** aukera sakatuta, historikoa ikusteko. Horrez gain, egutegian, nahi duzun eguna iragazi dezakezu, baita hauen arabera ordenatu ere: **“Grabaziodun gertaerak”** edo **“Sentsorearen arabera”**.

Ezagutu Euskaltel Liferen eskaintzen dituen aukera guztiak, hemen **www.euskaltel.com/life**

Ongi etorri Euskaltel Liferen.





Sartu

life.euskaltel.com

gunean zure ordenagailutik






Erregistratuta zaude?

Erraz-erraza da. **life.euskaltel.com** gunean modu seguruan sartzeko evergreen nabigatzaile bat erabili behar duzu (Chrome, Firefox, Safari, Microsoft Edge...) (Ez da bateragarria Internet Explorer-ekin).

Lehen aldiz sartzen zarenean, "**Ahaztu egin zait pasahitza**" sakatu behar duzu, eta jarraibideei segitu. Guk mezu elektronikoa bidaliko dizugu, zure pasahitza zein izango den erabaki dezazun. Ezin errazagoa.

Zorionak! Prest duzu zure eguneroko bizitza errazago egingo duen zerbitzua erabiltzeko behar duzun guztia.



Euskaltel Life

urratsez urrats



Jakinarazpenak aktibatu nahi dituzu?

Jakinarazpenak zure posta-kontuan jaso ditzakezu.

Lehenespenez, zure bezero-kontuan hautatutako helbide elektronikoan jasoko dituzu, baina zuk nahi adina helbide elektroniko eta kontaktu jar ditzakezu; nahi duzun bezala. Horretarako, hemen sartu behar duzu: **Hasiera > Konfigurazioa > Gehitu kontak-tua**

Jakinarazpenak edo kontaktua desaktibatze-ko, sakatu helbide elektronikoaren aurrean da-
goen botoi gorria, edo erabili zaborrontzi itxura duen ikonoa. Egina!



Emango diogu begiratu bat?

Prest duzu dena zure etxean izandako gertaerak **life.euskaltel.com** bidez kontsultatzeko.

Neurri bakoitzak zer esan nahi duen jakin nahi baduzu, jarri kurtsorean horien gainean, eta azalpena irakurri ahal izango duzu.

Erregistratutako neurrien historikoa bistaratzeko, sakatu **"Xehetasuna"**.

Datuak kontsultatzeaz gain, deskargatu egin ditzakezu. Hartara, guztia kontrolpean izango duzu.





Badakizu sentsore eta neurgailu guztien izenak alda ditzakezula?

Pertsonaliza itzazu, errazago identifika ditzazun.

Webgunearen bidez egin dezakezu, "Aldatu izena" sakatuta. 



Euskaltel Life kamera bat duzu? Edo bi?

Bada, zuzenean ikus dezakezu zure etxean edo bulegoan gertatzen dena, edonon zaudela ere. Sar zaitez haietan **life.euskaltel.com** bidez, eta sakatu **PLAY** bistaratu nahi duzun kameran. Gertatzen ari dena ere grabatu dezakezu. Oso erraza da: sakatu **REC** menuan. Teknologiarik aurreratuenaren erraz-erraz kontrola dezakezu.





Berriro ikusi nahi dituzu zure grabazioak?

Sar zaitetz webgunetik grabazioetara “**Grabazioak**” sakatuta; hautatu bistaratu nahi duzuna, eta sakatu **PLAY**.

Erreproduzio bakoitzaren amaieran grabazioak ezabatzeko edo gordetzeko aukera izango duzu. Zeuk erabaki. **Euskaltel Lifek** aukera ematen dizu guztira 30 grabazio gordetzeko. Zuk zeuk gordetzen ez dituzunak hilabete pasatu ondoren ezabatuko dira.



Nola daki Euskaltel Lifek etxean zauden ala ez?

Euskaltel Life zerbitzu bat da, etxea kontrolatzen laguntzen dizuna, bai etxean zaudenean, bai kanpoan zaudenean. Gauean txikiak jaikitzen direnean korridoreko argiak piztu daitezela, etxean zaudela simulatu dezala nahi dituzun gailuak piztuta... Horretarako, “**Moduak**” sortu behar duzu.

Moduak konfiguratuta, **Euskaltel Lifek** jakingo du zer ordutegi duzun. Hartara, etxean zauden ala ez jakingo du, bai eta gaua den ala eguna den.

Webaren goiko partean “**Moduak**” kontsulta ditzakezu, eta eskuz konfiguratu edo programatu. Probatuko dugu?



Eskuz

“**Eskuz**” aukera hautatzen baduzu, modua aldatu nahi duzun bakoitzean aukeretako bat hautatu beharko duzu: etxean egunez, etxean gauzez edo etxetik kanpo.

Erraza da; orri nagusian “**Eskuz**” aukeran sartu besterik ez duzu egin behar. Ezkerrean dituzu modua hautatzeko hiru aukerak.



Modu programatua

Moduak automatikoki aktiba daitezzen nahi baldin baduzu, programatu egin behar dituzu.

Pantaila nagusian, sartu “**Programatuta**” aukeran, sakatu “**Konfiguratu**” eta “**Moduaren programazioa**” zure ordutegia konfiguratzeko.

Sakatu “**Asteko egun guztietan erabili**” aukera ordutegi bera egunero errepikatzeko. Sakatu Gorde konfigurazioa amaitzen duzunean. Egina!





Erregela berri bat gehitu nahi duzu?

Jaso abisuak **Euskaltel Lifek** zure etxean kea edo mugimenduren bat detektatzen duenean zu kanpoan baldin bazaude. Edo berogailua piztu dadila etxeko tenperatura zuk nahi duzuna baino baxuagoa baldin bada. Horretarako erregelak eta oharrak konfiguratu beharko dituzu.

Webgunetik egin dezakezu. Sar zaitetz orri nagusian, eta sakatu **"Konfiguratu"**.

Konfiguratu > Erregelak atalean iragazki batzuk dituzu sortu nahi duzun erregela-mota hautatzeko. Ondoren, sakatu **"Erregela berri bat gehitu"**, hautatu zure beharretara hobekien egokitzen dena, eta konfiguratu ezazu. Ez ahaztu egindako aldaketak gordezea.





Zure etxeko kontsumoa kontrolatu eta alderatu nahi duzu?

Orain, horretarako aukera duzu **Euskaltel Liferen** entxufe adimendunei esker. Gainera, konfiguratu egin ditzakezu, abisu bat bidal diezazuten elektrizitatearen kontsumoa handia denean. Esan agur ezustekoei!



Gainera, aurreztu etxetresna elektroniko guztiak programatuta itzaltzeko aukeraren bidez, **“Stand by”** egoeran edukitzeak dakarren energia-gastua aurreztuko baituzu.

Nahiago baduzu, urrunetik piztu eta itzali ditzakezu entxufe adimendunak, orri nagusitik. Handik, zuk nahi duzuna hautatu ahal izango duzu, eta nahi duzunean aktibatu edo desaktibatu. Zoragarria.



Gertaerak kontsultatzea



Ikusiko zer gertatu den etxean?

Gertaera bat da **Euskaltel Lifek** bidaltzen duen edozein ohar da. Adibidez: **“Jakinarazi haurren TBa behar ez den ordu batean aktibatu bada”**

Sartu erregistratutako gertaeren laburpenean, orri nagusiko **“Gertaerak egunka”** aukera sakatuta, historikoa ikusteko. Horrez gain, egutegian, nahi duzun eguna iragazi dezakezu, baita hauen arabera ordenatu ere: **“Grabaziodun gertaerak”** edo **“Sentsorearen arabera”**.

Ezagutu Euskaltel Lifek eskaintzen dituen aukera guztiak, hemen:
www.euskaltel.com/life

Ongi etorri Euskaltel Liferara.



euskaltel
life

